

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa alde zuzenetik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (izen-abizenak eta NANA). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. • Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. • Helburua iritzia trukitzea, argudiatzea eta eztabaidatzea da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zeure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

ETXEKO LANEN BALIO EKONOMIKOA



Lansari bat ez duen zeregina lana al da? XXI. mendean baietz esango genuke. Haurtxo baten zaintza, gaixo bati arreta ematea, umeari ikasketetan laguntzea, etxebizitza garbitzea... Horiek guztiak egiten dituenak ez du eurorik jasotzen. Baina egun batean horiek egiteari utziko balio, izugarriko kolapso sozial baten aurrean geundeke, etxeke lanak gure bizimodua aurrera ateratzeko ezinbestekoak baitira.

Etxeko lanak balioan jartzeko proposamen ugari egon dira, esaterako, estatuak soldata bat emateko eskaera. Argi dago etxeke lanen balioa dirutan kalkulatu balitz, herrialdeen ekonomia guztiz eraldatuko litzatekeela.

<Beha.es>, 2015eko ekaina. Egokitua.

Kapitalismoak etxeke lanak maitasun-ekintzat hartu ditu, emakumeak horietara lotzeko, jarduera horien lan-kargari ez erreparatzeko eta, oro har, lan hori behar bezala kontuan ez hartzeko.

Soldataren aldeko borroka gaur egungo ikuspegitik ez litzaguke oso estrategia egokia irudituko, nahiz eta ikusgarritasuna lortzeko bide egokia izan litekeen. Gainera, lan horiek enplegu bihurtu diren kasuetan (etxeke langileen kasuetan), oso era prekarioan egin ohi dira eta gehienetan emakumeen kargu daude. Ez al da egokiagoa soldatarik gabeko lan horiek baloratzeko beste bide batzuk bilatzea?


<Irakurleeskolafeminista.wordpress.com>, 2013ko abendua. Egokitua

- Etxeko zereginetan aritzea lantzat ala maitasun-ekintzat hartu behar dugu? Zergatik?
- Zer deritzozu etxeke lanen truke soldata jasotzeari? Nork ordaindu beharko luke?
- Zer gertatuko litzateke egun batean egiteari utziko baliote? Kolapsoa?
- Beste modu batean baloratzea litzateke egokiena? Nola?

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zeure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

EZINDUEN INTEGRAZIOA



Oztopo eta traba ugari izan ohi dituzte ezintasunen bat dutenek eguneroko bizitzari aurre egiteko. Baina indartsuak izaten ikasi dute halabarrez. Beren urritasunek eskatzen dieten ahaleginaz gain, gizartearen utzikeriari ere aurre egin behar izaten diote sarri. Normaltasun eza salatzen dute. Batzuetan ume txikiak balira bezala tratatzen ditugu, gehiegi babestuz eta beste batzuetan, berriz, beste aldera begiratzen dugu.

Gizartea aurreiritziz beteta dago; ezinduak direlako ez dizkiete aukera berak ematen, ezindu gutxi dago lan-munduan sartuta, adibidez. Badakite lan-egoera oso zaila dela, baina lan eta soldata duin bat izateko aukera besterik ez dute aldarrikatzen.

Gipuzkoako hitza. Egokitua.

Ezinduek eskatzen dutena ulergarriago egiteko, eskaera zuzena egin nahi digute gainerako herritar guztioi: «Jar zaitetze une batez gure lekuan». Jar gaitezen beren lekuan hiriko edozein gune zeharkatu nahi dutenean, bidean hamaika oztopo aurkitzen dituztenean.

Baina trabak ez dira fisikoak bakarrik. Traba ere bada gorrarentzat edozein zerbitzutara joan, osasun-zentrora adibidez, eta bertan zeinuen hizkuntza itzultzeko inor ez egotea; edo autobusa hartzea aulki-gurpildunean dabilenarentzat; edo kirola egin nahi izatea, ez baitago berentzat egokitutako azpiegiturarik. Haserre daude, lan bila doazenean inork ez dituelako kontratatu nahi, edo enpresa gehienek, hirutik bik, muzin egiten diotelako Integrazio Legeak agintzen dituen enpleguak erreserbatzeari.

Berria. Egokitua.

- Nola tratatzen ditugu ezinduak? Aurreiritzi gehiegi dago gai honetaz? Zein?
- Zer pentsatuko zenuke beren lekuan jarriz gero? Prestaturik dago gizartea ezinduentzat?
- Zer iruditzen zaizu Integrazio Legeak dioena? Zer egin beharko litzateke bete ezean?
- Lana al da ezinduek duten trabarik handiena?

2. ariketa


Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain

- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
- Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
- Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- Elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen.
- Esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen.
- Euskara nola erabiltzen duzuen: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

**TEST PSIKOTEKNIKOAK:
 EZINBESTEKOAK HAUTAKETA PROZESUETAN**



- Test psikoteknikoei esker badugu **jendearen nortasuna** aztertzeko tresna fidagarria.
- Balizko gaitasunak neurtzea du helburu, aurreiritzi **subjektiboak alde batera** utzita.
- Proba **objektiboak** dira, batez ere **hautaketa-prozesu handietan**.
- Sarritan **agerian** uzten dituzte elkarrizketan **ikusten ez diren** hautagaien **ezaugarriak**.

TEST PSIKOTEKNIKOAK: TRESNA OSAGARRIAK BAINO EZ HAUTAKETA PROZESUETAN



-
- Ondo egin ezean, lagundu beharean, **informazio okerra** eman dezakete testek.
 - Askotan datuak **ez dira baliagarriak**, hautagaiek aldez **aurretik prestatzen** baitituzte testak.
 - **Badaude** hautagaiak aukeratzeko test psikoteknikoak baino **metodo fidagarriagoak**.
 - Hautaketa-prozesuetan erabili arren, **ezin da baztertzailer** izan; **beste tresna bat** baino ez da.